GENERO BERDINTASUNA

Erakundea: KIROLGI FUNDAZIOA
Programa: 010 - Kirolgi Fundazioa

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

2005ean hausnarketa estrategiko bat egin zen, eta ondorioetan hainbat faktore zehaztu ziren, zeharka garatu beharrekoak jardun ildo guztietan eta errendimendu handiko kirolaren esparruan. Faktore estrategiko horietako bat "Emakumeen Kirola" izan zen. Lorpen nagusia Kirolgi Fundazioaren dirulaguntzen onuradunen kopurua eta emandako diruzko zenbatekoa orekatzea izan da. Gaur egun, ia % 50eko parekotasuna dago onuradunei dagokienez, eta emakumeen kirolera bideratutako baliabide ekonomikoen % 54. Urtero eskatzen zaie taldeei eta kirolariei, dagozkien hitzarmenen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak genero berdintasunaren inguruan egiten dituen ekintzetan inplikatzeko. 2026an emakumezkoen eskubaloiko Erreginaren Kopa antolatzen lagundu da. Bera Bera RT eskubaloiak Iberiar Superkopako eta Erreginaren Kopako tituluak lortu ditu, eta Gipuzkoan errendimendu handiko emakumezkoen eskubaloia egoera onean dagoela berretsi du. Era berean, CGR Donosti taldeak Emakumezkoen Gimnastika Erritmikoko Ohorezko Mailan parte hartzen lagundu du, eta Zarautzen eta Urretxun egoitza duten emakumezkoen txirrindularitzako bi egiturak mantendu dira. Horietatik lehenak emaitza onak lortu ditu Espainiako Kopan.

Kuantifikazioa:	14.300,00	(% 0,27)
Ordainketa kredituak:	14.300,00	(% 0,27)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)